

KLIMA ALDAKETARI BURUZKO NAZIO BATUEN ESPARRU KONBENTZIOA

Konbentzio honen kideek

Lurrean klimaren aldaketak eta bere kontrako eraginak gizaki guztien ardura komuna direla onartuta,

batetik, giza jardueren eraginez atmosferan berotegi-efektuko gasen kontzentrazioa nabarmen areagotu delako eta, bestetik, gainazalaren eta Lurraren atmosferaren beroketa eragingo dituen eta ekosistema naturalean eta gizaterian aurkako eragina sor dezakeen areagotze horrek berotegi-efektu naturala areagotu egiten duelako arduratuta,

bai historikoki, bai gaur egun berotegi-efektuko munduko gasen isurketek jatorria garatutako herrialdeetan izan dutela; garapen bidean dauden herrialdeetako biztanleko isurketak oraindik nahiko murrizak direla eta herrialde horietan sortutako isurketa guztien proportzioa beren behar sozialak eta garapeneko beharrak asetzeko areagotu egingo dela kontuan hartuta,

lurreko eta itsasoko ekosistementzako berotegi-efektuko gasen hustuleku eta biltegi naturalen funtzioaz eta garrantziaz jabetuta,

klimaren aldaketaren iragarpenetan elementu asko –bereziki banaketa kronologikoaren, bere tamainaren eta lurralde mailako ezaugarrien inguruko elementuak– zalantzan daudela gogoan hartuta,

klimaren aldaketak mundu mailako izaera duenez, herrialde guztiek elkarlanean erabat aritzea eta, beren ardura komun baina desberdinen, beren gaitasunen eta beren baldintza sozialen eta ekonomikoen arabera, nazioarteko erantzun eragingarri eta egokian parte hartzea beharrezkoa dela onartuta,

1972ko ekainaren 16an Stockholm-en onartutako Ingurugiroari buruzko Nazio Batuen Biltzarreko Adierazpeneko gai honi buruzko xedapenak gogoan hartuta,

estatuek, batetik, Nazio Batuen Gutunaren eta nazioarteko zuzenbidearen printzipioen arabera, beren balibideak beren ingurugiro- eta garapen-politikak jarraituz ustiatzeko eskubide osoa dutela eta, bestetik, beren jurisdikzioaren barruan edo beren kontrolpean egiten diren jarduerak beste estatuetak edo beren jurisdikzio nazionaletik kanpo dauden guneetako ingurugiroari kalterik egin ez diezaieten zaintzeko ardura dutela ere gogoan hartuta,

klimaren aldaketari aurre egiteko nazioarteko lankidetzaren barruan estatuen subiranotasunaren printzipioa berretsita,

estatuek ingurugiroari buruzko lege eragingarriak promulgatu beharko lituzketela; ingurugiroko arauak, kudeaketa-helburuek eta lehentasunek aplikatuko diren guneko ingurugiroaren eta garapenaren egoera islatu behar dutela eta herrialde batzuetan aplikatutako arauak beste herrialde batzuentzako, bereziki garapen bidean daudentzako, ezegokiak izan daitezkeela eta gastu ekonomiko eta sozial justifikaezinak eragin ditzaketela onartuta,

batetik, Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarrari buruzko 1989ko abenduaren 22ko Batzar Nagusiaren 44/228 ebazpenaren xedapenak eta, bestetik, uneko eta etorkizuneko belaunaldientzako klimaren mundu mailako babesari buruzko 1988ko abenduaren 6ko 43/53 xedapena, 1989ko abenduaren 22ko 44/207 xedapena, 1990eko abenduaren 21eko 45/212 xedapena eta 1991ko abenduaren 19ko 46/169 xedapena gogoan hartuta,

itsasoaren maila igotzeak kostaldeko uharteetan eta guneeetan, bereziki kostaldeko gune baxuetan, izan ditzakeen eraginen inguruko 1989ko abenduaren 22ko Batzar Nagusiaren 44/206 ebazpeneko xedapenak eta desertifikazioari aurre egiteko Ekintza Plana gauzatzearen inguruko 1989ko abenduaren 19ko Batzar Nagusiaren 44/172 ebazpeneko xedapen egokiak ere gogoan hartuta,

gainera, Ozono Geruza Babesteko 1985eko Vienako konbentzioa eta ozono-geruza agortzen duten gaiari buruzko 1987ko Montrealgo Protokoloa –1990eko ekainaren 29an moldatutakoa eta zuzendutakoa– gogoan hartuta,

1990eko azaroaren 7an onartutako Klimari buruzko Munduko Bigarren Biltzarraren Ministerioaren Adierazpena kontuan hartuta,

batetik, estatu askok klimaren aldaketari buruz egiten duten lan analitiko garrantzitsuen eta, bestetik, Meteorologiaren Munduko Erakundeak, Nazio Batuen Ingurugiro Programak, nazioarteko eta gobernuarteko beste erakundeek eta Nazio Batuen sistemako beste organo, erakunde eta organismoek ikerketa zientifikoetarako eta ikerketa horien koordinaziorako egindako ekarpenen jakitun,

klimaren aldaketa ulertzeko eta aldaketari aurre egiteko behar diren neurriak ordena zientifiko, tekniko eta ekonomikoko baldintzetan oinarritzen badira eta gaiaren inguruko aurkikuntza berrien arabera berriro ebaluatzen badira ingurugiroaren, gizartearen eta ekonomiaren alorretan eragingarriagoak izango direla onartuta,

klimaren aldaketari aurre egiteko hainbat neurrik ekonomia aldetik berez dutela justifikazioa eta ingurugiroko beste arazo batzuei aurre egiten lagundu dezaketela ere onartuta,

mundu, nazio eta, hala komeni denean, lurralde mailan, berotegi-efektua areagotzearen inguruko ekarpenak aintzat hartuta, berotegi-efektuko gas guztiak behar bezala kontuan hartuko dituen erantzun integralerako estrategietarantz eman beharreko lehen pauso gisa, garapen bidean dauden herrialdeek lehentasun argien gainean era malguan berehala ekiteko beharra ere onartuta,

gainera, altitude baxuko herrialdeak eta uharteetako beste herrialde txikiak, kostaldeko gune baxuak dituzten herrialdeak, gune elkor eta erdielkorak eta ekosistema menditsu ahulak dituzten kostaldeetako guneak klimaren aldaketan aurrean zaurgarriak direla onartuta,

berotegi-efektuko gasen isurpena mugatzeko hartu beharreko neurrien ondorio gisa, ekonomia erregai fosilen produkzioaren, erabileraren eta esportazioaren menpe duten herrialdeen, bereziki garapen bidean dauden herrialdeen, zailtasun bereziak onartuta,

hazkunde ekonomiko jasagarria eta pobrezia arintzea lortzeko garapen bidean dauden herrialdeek dituzten legezko lehentasunezko beharrak guztiz kontuan hartuta, garapen sozial eta ekonomikoan aurkako eraginak izatea ekiditeko, klimaren aldaketari emandako erantzunak garapen sozial eta ekonomikoarekin integratuta koordinatu beharko lirakekeela baieztatuta

besteak beste, teknologia berriak aplikatzearen bidez –aplikazio hori ekonomikoki eta sozialki onuragarria izateko moduan– eragingarritasun energetiko handiagoa lortzeko eta berotegi-efektuko gasen isurpena kontrolatzeko aukerak kontuan hartuta, batetik, herrialde guztiek, bereziki garapen bidean dauden herrialdeek, garapen ekonomiko eta sozial jasagarria lortzeko behar dituzten baliabideak eskuratzeko aukera izan behar dutela eta, bestetik, garapen bidean dauden herrialdeek helburu hori lortzeko beren energia kontsumoa areagotu egin beharko dutela onartuta,

uneko eta etorkizuneko belaunaldientzako sistema klimatikoa babestu behar dela erabakita,

ondorengo hitzartu dute:

1. ARTIKULUA¹: Definizioak

Konbentzio honetako erabakietan:

1. "Klimaren aldaketaren aurkako eragina" k honakoa esan nahi du: ingurugiro fisikoan edo biotan gertatzen diren klimaren aldaketak sortutako aldaketak; aldaketa horiek eragin kaltegarri nabarmenak dituzte, bai ekosistema naturalen edo antolatetara lotutako en konposizioan, erreku peratzeko gaitasunean edo produktibitatean; bai sistema sozioekonomikoen funtzionamenduan; bai gizakien osasunean eta ongizatean.
2. "Klimaren aldaketa" k honakoa esan nahi du: giza jarduerak zuzenean edo zeharka sortutako klimaren aldaketa, munduko atmosferaren konposizioa aldatzen duena eta garai alderagarrietan zehar behatutako klimaren aldakortasunari gehitzen zaiona.
3. "Sistema klimatikoa" ren barruan honakoa sartzen da: atmosfera, hidrosfera, biosfera eta geosfera osoa eta beren elkarreraginak.
4. "Isurpen" ak honakoa esan nahi du: garai eta gune zehatzean berotegi-efektuko gasak edo beren aitzindariak atmosferan askatzea.
5. "Berotegi-efektuko gas" en barruan honakoa sartzen da: erradiazio infragorriak xurgatzen edo berriro isurtzen dituzten atmosferako osagai gaseosoak, bai naturalak, bai antropogenoak.
6. "Integrazio ekonomikorako lurralde mailako erakunde" a honakoa da: lurralde zehatz bateko estatu subiranoek osatutako erakundea. Erakunde honek Konbentzio honetan edo

¹ Artikuluen izenburuak irakurleari laguntzeko bakarrik gehitu dira

bere protokoloetan arautzen diren gaien inguruko eskumena du eta, barruko prozeduren arabera, behar adinako baimena du gaiari dagozkion bitartekoak sinatzeko, berresteko, onartzeko eta onesteko edo bitartekoei atxikitzeko.

7. "Biltegi" honakoa da: berotegi-efektuko gasak edo berotegi-efektuko gasen aitzindariak biltegiratuta dauden sistema klimatikoko osagai bat edo gehiago.
8. "Hustuleku" honakoa da: atmosferatik berotegi-efektuko gasak, aerosola edo berotegi-efektuko gasen aitzindariak xurgatzen dituen edozein prozesu, jarduera edo mekanismo.
9. "Iturri"ak honakoa esan nahi du: atmosferan berotegi-efektuko gasak, aerosola edo berotegi-efektuko gasen aitzindariak askatzen dituen edozein prozesu edo jarduera.

2. ARTIKULUA: Helburua

Konbentzio honen eta Kideen Biltzarrak honekin lotuta onartuko duen bitarteko juridiko osoaren azken helburua Konbentzioaren xedapen egokien arabera atmosferan berotegi-efektuko gasen kontzentrazioa sistema klimatikoan interferentzia antropogeno arriskutsuak ekiditeko adina egonkortzea da. Gasen kontzentrazio-maila hori epe egokian lortu beharko litzateke ekosistemak aldaketa klimatikora naturalki egoki daitezen, elikagaien produkzioa ez mehatxatzea segurta dadin eta garapen ekonomikoak era jasangarrian jarraitzea utz dadin.

3. ARTIKULUA: Printzipioak

Kideek, besteak beste, ondorengoari jarraituko diote, Konbentzioaren helburuak lortzeko eta beren xedapenak aplikatzeko hartu beharreko neurrietan:

1. Kideek sistema klimatikoa babestu beharko lukete uneko eta etorkizuneko belaunaldien onerako, zuzentasuna oinarri hartuta eta ardura komun baina bereiztuen eta beren gaitasunen arabera. Ondorioz, herrialde garatu diren kideek klimaren aldaketari eta bere aurkako eraginei aurre egitearen inguruan aurrea hartu beharko lukete.
2. Garapen bidean dauden kideen, bereziki klimaren aldaketaren aurkako eraginen aurrean ahulak diren herrialdeen, behar zehatzak eta egoera bereziak guztiz kontuan hartu beharko lirateke. Horrez gain, Konbentzioa betez gero ezohiko edo neurrigabeko karga jasan behar luketen kideen, bereziki garapen bidean dauden herrialdeen, beharrak eta egoera ere kontuan hartu beharko lirateke.
3. Kideek arretarako neurriak hartu beharko lituzkete klimaren aldaketei aurre hartzeko, prebenitzeko edo ahalik eta gehien murrizteko eta bere aurkako eraginak arintzeko. Kalte handia edo atzeraezina izateko mehatxua dagoenean, ez litzateke ziurgabetasun zientifikoaren gabezia erabili beharko hartu beharreko neurriak atzeratzeko, eta kontuan hartu beharko litzateke aldaketa klimatikoari aurre egiteko politikek eta neurriek gastuen arabera eragingarriak izan behar dutela, mundu osorako onurak ahalik eta merkeen lortu ahal izateko. Horretarako, politika eta neurri horiek testuinguru sozioekonomiko desberdinak hartu beharko lituzkete kontuan; integralak izan beharko lukete; berotegi-efektuko gasen iturri, hustuleku eta biltegi egokiak gehitu beharko lituzkete eta ekonomiaren sektore guztiak hartu beharko lituzke barruan. Klimaren aldaketari aurre egiteko ahaleginak kide interesatuen arteko elkarlanarekin gauzatu daitezke.
4. Kideek garapen jasangarrirako eskubidea dute eta sustatu egin beharko lukete. Gizakiak eragindako aldaketen aurrean sistema klimatikoa babesteko politikek eta neurriek egokiak

izan beharko lukete eta kide bakoitzaren baldintza zehatzetarako eta nazioetako garapen-programetan integratuta egin beharko lukete, aldaketa klimatikoari aurre egiteko neurriak hartzeko hazkuntza ekonomikoa ezinbestekoa dela kontuan hartuta.

5. Kideek nazioarteko ekonomia-sistema ireki eta egokia sustatzeko elkarlanean aritu beharko lukete. Sistema horrek kide guztiak, bereziki garapen bidean dauden herrialde diren kideak, hazkunde ekonomiko eta garapen jasangarrietara bideratu beharko lituzke eta era horretan klimaren aldaketak sorrarazitako arazoei hobeto egingo liekete aurre. Klimaren aldaketari aurre egiteko hartutako neurriek –alde bakarrekoak barne– ez lukete ingurune baztertzaila arbitrario eta justifikaezinik sortu behar, ezta nazioarteko merkataritzaren aurrean ezkutaturako murrizketarik ere.

4. ARTIKULUA: Konpromisoak

- 1) Kideek ondorengo egin beharko lukete, beren ardura komun baina bereiztuak eta beren nazio eta lurralde mailako lehentasunen, helburuen eta egoeren izaera espezifikoak kontuan hartuta:
 - a) 12. artikulua arabera, iturrien isurpen antropogenoen eta Montrealgo Protokoloak kontrolatzen ez dituen berotegi-efektuko gas guztien hustulekuen xurgatzeen inbentario nazionalak egitea, aldian-aldian eguneratzea, argitaratzea eta kideen Biltzarrari ematea. Horretarako Kideen Biltzarrak adostutako metodologia alderagarriak erabili beharko lituzkete;
 - b) Klimaren aldaketa arintzeko neurriak eta klimaren aldaketara erraz egokitzeko neurriak dituzten programa nazionalak eta, dagokienaren arabera, lurralde mailako programak formulatzea, aplikatzea, argitaratzea eta aldian-aldian eguneratzea, iturrien isurpen antropogenoak eta Montrealgo Protokoloak kontrolatzen ez dituen berotegi-efektuko gas guztien hustulekuen xurgaketak kontuan hartuta;
 - c) Montrealgo Protokoloak kontrolatzen ez dituen berotegi-efektuko gasen isurpen antropogenoak kontrolatzeko, murrizteko edo prebenitzeko teknologien, jardueren eta prozesuen garapena, aplikazioa eta hedapena elkarlanaren bidez babestea eta sustatzea dagokien sektore guztietan, horien artean energiaren, garraioaren, industriaren, nekazaritzaren, silbikulturaren eta hondakinen kudeaketaren sektoreetan;
 - d) Batetik, kudeaketa jasangarria sustatzea eta, bestetik, Montrealgo Protokoloak kontrolatzen ez dituen berotegi-efektuko gasen hustulekuak eta biltegiak –biomasa, basoak, ozeanoak eta lurreko, kostako eta itsasoko ekosistemak barne– kontserbatu eta, behar denaren arabera, sendotu daitezzen sustatzea eta lankidetzaren bidez babestea;
 - e) Klimaren aldaketaren inpaktuetara egokitzeko prestaketetan laguntzea. Horrez gain, batetik, kostaldeko guneak, baliabide hidrikoak eta nekazaritza antolatzeke eta, bestetik, lehorteek, desertifikazioak eta uholdeek kaltetutako guneak –bereziki Afrikako guneak– babesteko eta birgaitzeko plan egoki eta integratuak garatzea eta lantzea;
 - f) Klimaren aldaketaren inguruko gaiak, ahal den neurrian, ingurugiroko, ekonomiako eta gizarteko politika eta neurri egokietan kontuan hartzea eta metodo egokiak erabiltzea, esate baterako nazio mailan formulatutako eta zehaztutako inpaktuaren ebaluazioak.

- Horren helburua kideek klimaren aldaketa arintzeko edo aldaketara egokitzeko martxan jarritako proiektuek edo neurriek ekonomian, giza osasunean eta ingurugiroaren kalitatean dituzten eraginak ahalik eta gehien murriztea da;
- g) Batetik, sistema klimatikoaren inguruko ikerketa zientifiko, teknologiko, tekniko eta sozioekonomikoak eta beste mota batzuetako ikerketak; bestetik, behaketa sistematikoa eta, azkenik, datuen artxiboen eraketa sustatzea eta lankidetzaren bidez babestea. Honen helburua klimaren aldaketaren zergatiak, eraginak, tamaina eta banaketa kronologikoa eta horri erantzuteko estrategien ondorio ekonomiko eta sozialak eta gaiaren inguruan oraindik dauden zalantzak murrizteak edo deuseztatzeak eragiten dituen ondorio ekonomiko eta sozialak errazago ulertzea da;
 - h) Sistema klimatikoari eta klimaren aldaketari buruzko eta hauei erantzuteko estrategien ondorio ekonomiko eta sozialei buruzko informazio zientifiko, teknologiko, tekniko, sozioekonomiko eta juridikoen truke osoa, irekia eta egokia sustatzea eta lankidetzaren bidez babestea;
 - i) Klimaren aldaketari buruzko jendearen heziketa, trebakuntza eta sentsibilizazioa sustatzea eta lankidetzaren bidez babestea eta prozesu horretan ahalik eta parte-hartze zabalena –gobernuz kanpoko erakundeen parte-hartzea barne– suspertzea;
 - j) 12. artikulua araberan, Kideen Biltzarrari aplikazioaren inguruko informazioa ematea
- 2) Garatutako herrialde diren kideek eta I. eranskinean aipatzen diren gainerako kideek ondoren hitzarturik dagoena betetzeko konpromisoa hartu dute:
- a) Kide bakoitzak politika nazionalak eratuko ditu² eta klimaren aldaketa arintzeko dagozkion neurriak hartuko ditu; horretarako berotegi-efektuko gasen isurpen antropogenoak mugatu beharko ditu eta berotegi-efektuko gasen hustulekuak eta biltegiak babestu eta hobetu beharko ditu. Politika eta neurri horiek, Konbentzio honen helburuekin bat, isurpen antropogenoen joerak epe luzeagora begira aldatzeko garaian herrialde garatuak aurrea hartzen ari direla frogatuko dute. Honen inguruan, oraingo hamarkada amaitu aurretik karbono dioxidoaren isurpen antropogenoen eta Montrealgo Protokoloak kontrolatzen ez dituen berotegi-efektuko beste gasen maila aurreko garaietako maila berera jaisteak aldaketa hori lagundu egingo duela onartu behar da, eta ondorengo kontuan hartu behar da: alde horien abiapuntu eta ikuspegi desberdina, egitura ekonomikoak eta baliabideen oinarriak; hazkunde ekonomiko sendo eta jasangarria mantentzeko beharra; teknologia jasangarriak; beste egoera indibidual batzuk eta, azkenik, kide bakoitzak helburu horiek lortzeko munduko ekintzari berdintasunean eta era egokian laguntzeko beharra. Kide horiek neurri eta politika horiek beste kide batzuekin batera aplikatu ahal izango dituzte eta beste kide batzuei lagundu ahal izango diete Konbentzioaren helburua lor dadin eta, bereziki, puntu honetan aipatutako helburuak lor daitezten;
 - b) Helburu hori lortzeko lana bultzatzen dadin, kide horietako bakoitzak, 12. artikulua betez, batetik, a) puntuan aipatzen diren politikei eta neurriei buruzko informazioa zehatza eta, bestetik, a) puntuan aipatzen den garairako, iturrien isurpen antropogenoen eta Montrealgo Protokoloak kontrolatzen ez dituen berotegi-efektuko gasen hustulekuen xurgapenaren inguruko proiektzioen emaitzak aurkeztuko ditu, kide horren lurraldean

² Honen barruan integrazio ekonomikoko lurralde mailako erakundeek hartutako politikak eta neurriak sartzen dira.

- Konbentzio hau indarrean jarri eta hurrengo sei hilabeteen barruan eta hortik aurrera aldiari-aldiari. Honen helburua herrialde bakoitzak bere kasa edo elkarturik karbono dioxidoaren eta Montrealgo Protokoloak kontrolatzen ez dituen berotegi-efektuko beste gasen isurpen antropogenoen maila 1990 urtean zenera jaistea izango litzateke. Kideen Biltzarrak informazio hori bere saioen lehen aldiari aztertuko du eta hortik aurrera aldiari-aldiari egingo du azterketa hori, 7. artikulua betez;
- c) b) puntuari helburuak betetzeko, iturrien isurpenak eta berotegi-efektuko gasen hustulekuen xurgapenak kalkulatzeko, eskura dauden ezagutza zientifikorik zehatzenak hartuko dira kontuan, horien artean hustulekuen edukiera eragingarriari eta gas horiek klimaren aldaketari egiten dioten ekarriari buruzkoak. Kideen Biltzarrak kalkulu horiek egiteko erabili beharreko metodologiak aztertu eta adostuko ditu, bere saioen lehen aldiari, eta hortik aurrera aldiari-aldiari;
- d) Kideen Biltzarrak bere saioen lehen aldiari a) eta b) puntuak aztertuko ditu, egokiak diren ala ez zehazteko. Azterketa hori klimaren aldaketari eta bere eraginei buruz eskura dauden informazio eta ebaluazio zientifiko zehatzenak erabilia eta informazio tekniko, sozial eta ekonomiko egokia erabilia egingo da. Azterketa hori oinarri hartuta, Kideen Biltzarrak neurri egokiak hartuko ditu eta neurri horiek a) eta b) puntuetan hitzartutako konpromisoen zuzenketak izan daitezke. Kideen Biltzarrak, bere saioen lehen aldiari, a) puntuari aipatutako aplikazio bateraturako irizpideei buruzko erabakiak ere hartuko ditu. a) eta b) puntuen inguruko beste azterketa bat ere egingo da, berandu jota 1998ko abenduaren 31 baino lehen, eta hortik aurrera azterketa gehiago egingo dira Kideen Biltzarrak zehaztutako maiztasunez, Konbentzio honen helburuak lortu arte;
- e) Kide bakoitzak:
- i) Aipatutako gainerako kideekin, dagokionaren arabera, Konbentzioaren helburuak lortzeko berari dagozkion bitarteko ekonomiko eta administratiboak koordinatuko ditu; eta
- ii) Normalean sortuko lituzkeenak baino isurpen-maila handiagoak sortzen dituzten berotegi-efektuko gasen isurpen antropogenoak, Montrealgo Protokoloak kontrolatzen ez dituenak, sortzen dituzten jarduerak bultzatzen dituzten politika eta jarduerak identifikatu eta berrikusiko ditu;
- f) Kideen Biltzarrak I. eta II. eranskinetan aipatzen diren zerrendetan sartu beharreko zuzenketen inguruko erabakiak hartzeko eskura duen informazioa aztertuko du, berandu jota 1998ko abenduaren 31 baino lehen, interesa duten kideen onapenarekin;
- g) I. eranskinean sarturik ez dagoen edozein kidek aurreko a) eta b) puntuen inguruko obligazioak bere gain hartzeko asmoa adieraz diezaioke gordailuzainari, hortik aurrera edozein unetan, berresteko, onesteko, onartzeko eta atxikitzeko bere baliabideen barruan. Gordailuzainak emango die gainerako sinatzaileei eta kideei jakinarazpenaren berri.
- 3) II. eranskinean agertzen diren garapen bidean dauden herrialde diren kideek eta garatutako herrialde diren kideek finantza-baliabide berriak eta osagarriak emango dituzte garapen bidean dauden herrialde diren kideek 12. artikuluko 1. paragrafoaren arabera beren eginbeharrak bete ahal izateko egin dituzten hitzartutako gastu guztiak estaltzeko. Garapen bidean dauden herrialdeek artikuluko honen 1. paragrafoan aipatzen diren neurriak aplikatzearen ondorio diren hitzartutako gastu osagarri guztiak ordaintzeko behar dituzten

- finantza-baliabideak, horien artean teknologien transferentziarako baliabideak, ere emango dituzte; finantza-baliabide horiek garapen bidean dagoen herrialde den kidearen eta 11. artikuluan aipatzen diren nazioarteko erakundeen artean adostuko da, artikulua horren arabera. Konpromiso horiek gauzatzeko garaian, funtsen korrontea egokia eta aurreikusteko modukoa izateko beharra kontuan hartuko da eta karga garatutako herrialde diren kideen artean behar bezala banatzeko garrantzia ere kontuan hartuko da.
- 4) Garatutako herrialde diren kideek eta II. eranskinean agertzen diren garatutako herrialde diren kideek ere lagunduko diete klimaren aldaketaren ondorioen aurrean bereziki zaugarriak diren garapen bidean dauden kideei aurkako eragin horietara egokitzeko gastuei aurre egiten.
 - 5) II. eranskinean agertzen diren garapen bidean dauden kideek eta garatutako herrialde diren kideek ahal dituzten neurri guztiak hartuko dituzte beste kide batzuei, bereziki garapen bidean daudenei, ingurugiroaren aldetik osasungarriak diren teknologia eta ezagutza praktikoak transferitzea edo eskura jartzea sustatzeko, errazteko eta finantzatzeko, honela Konbentzioaren xedapenak aplikatzeko aukera izan dezaten. Prozesu honetan, garatutako herrialde diren kideek garapen bidean dauden kideen gaitasun eta teknologia endogenoen garapena eta hobekuntza babestuko dituzte. Horretarako aukera duten beste kide eta erakundeek ere lagundu dezakete teknologia horien transferentzia errazten.
 - 6) 2. paragrafotik eratorritako konpromisoak betetzeko garaian, Biltzarrak malgutasun pixka bat emango die I. eranskineko herrialdeen artean merkatu-ekonomian trantsizio prozesuan dauden kideei, kide horiek klimaren aldaketari aurre egiteko duten gaitasuna areagotzeko, baita erreferentzi gisa hartutako Montrealgo Protokoloak kontrolatzen ez dituen berotegi-efektuko gasen isurpenen maila historikoarekin lotutako gaietan ere.
 - 7) Garapen bidean dauden kideek Konbentzioaren konpromisoak eragingarritasunez zenbateraino jarriko dituzten martxan ondorengoaren arabera egongo da: garatutako kideek finantza-baliabideei eta teknologien transferentziari buruzko konpromisoak eragingarritasunez zenbateraino betetzen dituzten. Gainera, ekonomia eta gizartea garatzea eta pobrezia deuseztatzea garapen bidean dauden kideen oinarrizko lehentasunak direla kontuan hartuko da.
 - 8) Artikulu honetan aipatzen diren konpromisoak gauzatzeko garaian, kideek sakon aztertuko dituzte Konbentzioaren arabera hartu beharreko neurriak, baita finantzazioarekin, seguruekin eta teknologiaren transferentziarekin lotura duten neurriak ere; hau garapen bidean dauden kideek klimaren aldaketaren aurkako eraginaren ondorioz edo erantzuteko hartutako neurriak aplikatzearen inpaktuaren ondorioz sortutako beharrei eta ardueri aurre egiteko egin beharko litzateke, bereziki ondorengo herrialdeetan:
 - a) Uhartetar herrialde txikietan;
 - b) Kostalde baxua duten herrialdeetan;
 - c) Gune elkorrak eta erdielkorrak, baso-estaldurez osatutako guneak eta baso-hondamendirako arriskua duten guneak dituzten herrialdeetan;
 - d) Hondamendi naturalak jasateko aukera gehien duten herrialdeetan;
 - e) Lehortek eta desertifikazioa jasateko aukera gehien duten herrialdeetan;
 - f) Kutsadura atmosferiko handia duten hiriguneak dituzten herrialdeetan;
 - g) Ekosistema ahuleko –mendiko ekosistemak barne– guneak dituzten herrialdeetan;

- h) Beren ekonomia, neurri handi batean, erregai fosilen eta energia intentsiboarekin lotura duten produktu elkartuen produkzioaren, prozesamenduaren eta esportazioaren menpe edo kontsumoaren menpe duten herrialdeetan;
- i) Kostarik gabeko herrialdeetan eta igarobide diren herrialdeetan.

Gainera, Kideen Biltzarrak paragrafo honekin lotura duten neurriak har ditzake.

- 9) Finantzazioarekin eta teknologien transferentziarekin lotura duten neurriak hartzeko garaian, kideek gutxien aurreratuta dauden herrialdeen behar espezifikoa eta egoera bereziak erabat hartuko dituzte kontuan.
- 10) Konbentzioaren inguruan hartutako konpromisoak martxan jartzeko garaian, kideek klimaren aldaketari aurre egiteko neurrien aurkako eraginen aurrean ekonomia ahula duten kideen, bereziki garapen bidean dauden kideen, egoera hartuko dute kontuan, 10. artikulua betez. Hori bereziki erregai fosilen eta energia intentsiboko produktu elkartuen produkzioaren, prozesamenduaren eta esportazioaren; beren kontsumoaren edo, azkenik, ordezkatzeko zailtasunak sortzen dituzten erregai fosilen erabileraren menpeko ekonomia duten kideei aplikatuko zaie.

5. ARTIKULUA: Ikerketa eta behaketa sistematikoa

4. artikuluko 1. paragrafoko g) puntuan aipatzen diren konpromisoak aurrera eramateko garaian, kideek:

- a) Dagokienaren arabera, ikerketa-jarduerak, datuen bilketa eta behaketa sistematikoa definitzea, gauzatzea, ebaluatzea edo finantzatzea helburu dituzten nazioarteko eta gobernuarteko erakundeak edo sareak eta programak babestu eta gehiago garatuko dituzte. Horretarako bitan edo gehiagotan egindako ahaleginak gutxitzeko beharra kontuan hartu beharko dute;
- b) Bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, bai behaketa sistematikoa, bai ikerketa zientifikoko eta teknikoko gaitasun eta bitarteko nazionalak sendotzeko, jurisdikzio nazionaletik kanpo dauden guneen inguruko datuak edonoren eskura egon daitezen sustatzeko eta datu horien trukea eta azterketa bultzatzeko nazioarteko eta gobernuarteko ahalegina babestuko dute; eta
- c) Bereziki garapen bidean dauden herrialdeen behar eta ardurak hartuko dituzte kontuan eta a) eta b) puntuetan aipatzen diren ahaleginetan parte hartzeko bitarteko eta gaitasun endogenoak hobetzeko elkarlana egingo dute.

6. ARTIKULUA: Jendearen heziketa, formazioa eta sentsibilizazioa

4. artikuluko 1. paragrafoko i) puntuan aipatzen diren konpromisoak martxan jartzeko, kideek:

- a) Nazio mailan eta, dagokionaren arabera, azpilurralde eta lurralde mailan, nazioko legeen eta araudien eta beren gaitasunaren arabera, ondorengoa sustatuko eta erraztuko dute:
 - i) Jendea klimaren aldaketari eta bere eraginei buruz hezteko eta sentsibilizatzeako programak aplikatzea eta lantzea;

- ii) Jendeak klimaren aldaketari eta bere eraginei buruzko informazio eskura izatea;
- iii) Jendeak klimaren aldaketari eta bere eraginei buruzko ikerketetan eta erantzun egokiak lantzeko lanetan parte hartzea; eta
- iv) Zientzialariak, teknikariak eta zuzendariak heztea;
- b) Nazioarte mailan, eta dagokienaren arabera, aurretik dauden erakundeen bidez, ondorengo jardueretan lagunduko dute eta sustatu egingo dituzte:
 - i) Jendea klimaren aldaketen eta bere eraginen inguruan sentsibilizatzeko materiala eta hezkuntza-materiala prestatzen eta trukatzeko; eta
 - ii) Heziketa- eta hezkuntza-programak lantzen eta aplikatzen eta nazio mailako erakundeak eta alor honetan adituak hezteko langileen trukea eta esleipena sendotzen, bereziki garapen bidean dauden herrialdeentzako.

7. ARTIKULUA: Kideen Biltzarra

- 1) Honen bidez, Kideen Biltzarra eratu da.
- 2) Kideen Biltzarrak, Konbentzio honen goreneko organoa denez, aldian-aldian Konbentzioaren aplikazioa eta Kideen Biltzarrak onartuko dituen bitarteko juridikoak aztertuko ditu. Horrez gain, bere agintaldian, Konbentzioa behar bezala aplikatu dadin sustatzeko behar diren erabakiak hartuko ditu. Horretarako:
 - a) Aldian-aldian kideen betebeharrak eta Konbentzio honen arabera onartutako akordio instituzionalak aztertuko ditu, Konbentzioaren helburuak, Konbentzioa aplikatuz lortutako esperientzia eta ezagutza zientifiko eta teknikoaren eboluzioa kontuan hartuta;
 - b) Klimaren aldaketari eta bere eraginei aurre egiteko kideek hartutako neurriei buruzko informazioaren trukea sustatu eta erraztuko du, kideen egoera, arduraren eta gaitasun desberdinak eta Konbentzioaren arabera dituzten konpromisoak kontuan hartuta;
 - c) Kide batek edo gehiagok hala eskatuta, klimaren aldaketari eta bere eraginei aurre egiteko hartutako neurrien koordinazioa erraztuko du, kideen egoera, arduraren eta gaitasun desberdinak eta Konbentzioaren arabera dituzten konpromisoak kontuan hartuta;
 - d) Konbentzioaren helburuen eta xedapenen arabera, Kideen Biltzarrak adostuko dituen metodologia alderagarrien garapen eta hobekuntza sustatu eta zuzenduko ditu, besteak beste, ondorengo helburuekin: batetik, iturrietatik isuritako berotegi-efektuko gasen eta hustubideen bidez egindako xurgatzeen inbentarioak prestatzeko eta, bestetik, isurpenak mugatzeko eta gas horien xurgatzea sustatzeko neurrien eragingarritasuna ebaluatzeko;
 - e) Konbentzioaren xedapenen arabera zabalduko dituen informazioa oinarri hartuta, batetik, kideen Konbentzioaren aplikazioa; bestetik, Konbentzioaren inguruan –bereziki ingurugiroaren, ekonomiaren eta gizartearen eraginen inguruan– hartutako neurrien eragin orokorrak eta, azkenik, beren metatze-eragina eta Konbentzioaren helburuak lortzeko egiten den aurrerapena ebaluatuko dute;
 - f) Konbentzioaren aplikazioari buruzko aldizkako txostenak aztertuko eta onartuko ditu eta argitaratu egingo ditu;
 - g) Konbentzioa aplikatzeko behar diren kontu guztiei buruzko aholkuak emango ditu;
 - h) Finantza-baliabide guztiak 4. artikulua 3, 4 eta 5. paragrafoen eta 11. artikulua arabera mugiarazten saiatuko da;

- i) Konbentzioa aplikatzeko beharrezkotzat jotzen dituen organo ordezkatzailleak eratuko ditu;
 - j) Bere organo ordezkatzailleek prestatutako txostenak aztertuko ditu eta organo horiei gidalerroak emango dizkie;
 - k) Bere araudia, finantza-araudia eta organo ordezkatzailleak aho batez erabaki eta onartuko ditu;
 - l) Hala dagokionean, nazioarteko erakundeen eta gobernuarteko eta gobernu kanpoko erakunde eskudunen zerbitzua eta lankidetzak eskatuko ditu eta erakunde hauek emandako informazioa erabiliko du; eta
 - m) Konbentzioaren helburuak betetzeko behar diren funtzio guztiak eta Konbentzioak bere esku uzten dituen funtzio guztiak beteko ditu.
- 3) Kideen Biltzarrak, bere saioen lehen aldia, Konbentzioaren arabera ezarritako bere araudiak eta organo ordezkatzailleak onartuko ditu. Horien barruan, Konbentzioan hitzartutako erabakiak hartzeko prozedurak aplikatzen ez zaizkien gaien buruzko erabakiak hartzeko prozedurak sartuko dira. Prozedura horiek zenbait erabaki hartzeko behar den gehiengoak zehaztu dezakete.
- 4) Kideen Biltzarraren saioen lehen aldia 21. artikuluan aipatzen den behin-behineko idazkaritzak deituko du eta gehienez ere Konbentzioa indarrean jarri eta handik urtebetera izango da. Ondoren, Kideen Biltzarraren saioen ohikoaldiak urtean behin egingo dira, Biltzarrak beste bat egitea erabakitzen ez badau behintzat.
- 5) Kideen Biltzarraren saioen ezohikoaldiak Biltzarrak beharrezkoak direla erabakitzen duen guztietan egingo dira edo kideetako batek idatziz hala eskatzen duenean, betiere, idazkaritzak gainerako kideei eskaera jakinarazitako egunetik hasita sei hilabetetara, eskaera horrek kideen herenaren babesa jasotzen badu.
- 6) Nazio Batuek, erakunde espezializatuek, Energia Atomikoaren Nazioarteko Erakundeak eta Konbentzioko kide ez den erakunde hauetako edozein estatukidek edo behatzailek Kideen Biltzarraren saioen aldietan egoteko aukera izango du, behatzaile gisa. Gainera organismo edo organo guztiak, bai nazionalek, bai nazioartekoek, Konbentzioan aipatzen diren gaien inguruan eskuduntzarik badute eta idazkaritzari Kideen Biltzarrean behatzaile gisa egoteko nahia jakinarazten badiote, hala onartuak izateko aukera izango dute, bertan dauden kideen herena aurka ez badago. Behatzaileen onarpena eta parte-hartzea Kideen Biltzarrak onartutako araudi batek zuzenduko du.

8. ARTIKULUA: Idazkaritza

- 1) Artikulu honen bidez idazkaritza eratu da.
- 2) Idazkaritzaren funtzioak ondorengoak dira:
 - a) Kideen Biltzarraren eta Biltzarraren arabera ezarritako organo ordezkatzaillearen saioen aldiak antolatzea eta behar dituzten zerbitzuak eskaintzea;
 - b) Aurkezten zaizkion txostenak biltzea eta transmititzea;
 - c) Hala eskatuz gero, kideei, bereziki garapen bidean dauden herrialde diren kideei, laguntza ematea Konbentzioaren xedapenen arabera beharrezkoa den informazioa biltzeko eta transmititzeko garaian;
 - d) Bere jardueren buruzko txostenak prestatzea eta Kideen Biltzarrean aurkeztea;

- e) Nazioarteko gainerako organoen idazkaritzen artean izan beharreko koordinazioa segurtatzea;
 - f) Bere funtzioak bete ahal izateko beharrezkoak diren administrazioko eta kontratuzko akordioak prestatzea, Kideen Biltzarrak zuzenduta; eta
 - g) Konbentzioan eta beste edozein protokolutan aipatzen diren idazkaritzako lanak betetzea eta Kideen Biltzarrak zehazten dituen gainerako funtzio guztiak betetzea.
- 3) Kideen Biltzarrak, bere saioen lehen aldian, idazkaritza iraunkorra izendatuko du eta funtziona dezan behar diren neurriak hartuko ditu.

9. ARTIKULUA: Aholkularitza zientifikoko eta teknologikoko organo ordezkatzailerak

- 1) Honen bidez aholkularitza zientifikoko eta teknologikoko organo ordezkatzailerak eratuko da, eta bere lana Kideen Biltzarrari eta, hala dagokionean, bere organo ordezkatzailerak Konbentzioarekin lotura duten alde zientifikoko eta teknologikoen informazioa eta aholkularitza egokia ematea da. Organo honetan kide guztiek parte har dezakete eta diziplina anitzekoa da. Dagokion espezialitatearen alorretan eskuduntza duten gobernuen ordezkariak osatuko dute. Aldian-aldian bere lanaren alde guztiei buruzko txostena aurkeztuko dio Kideen Biltzarrari.
- 2) Kideen Biltzarraren zuzendaritzapean eta nazioarteko organo eskudunetan babestuta, organo honek:
 - a) Klimaren aldaketaren eta bere eraginen inguruko ezagutza zientifikoen egoeraren ebaluazioa eskainiko du;
 - b) Konbentzioa aplikatzeko hartutako neurrien eraginei buruzko ebaluazio zientifikoak prestatuko ditu;
 - c) Berritzaileak, eragingarriak eta aurreratuak diren teknologiak eta ezagutzak identifikatuko ditu eta garapena sustatzeko moduei edo teknologia horiek transferitzeko moduei buruzko aholkularitza prestatuko du;
 - d) Batetik, programa zientifikoei; bestetik, klimaren aldaketaren eboluzioaren eta ikerketaren inguruko nazioarteko lankidetzari eta, azkenik, garapen bidean dauden herrialdeen gaitasun endogenoaren garapena babesteko neurri buruzko aholkularitza prestatuko du; eta
 - e) Kideen Biltzarrak eta organo ordezkatzailerak planteatutako galdera zientifiko, tekniko eta metodologikoei erantzun die.
- 3) Aurrerago, Kideen Biltzarrak organo honen funtzioak eta agintaritza hedatu ahal izango ditu.

10. ARTIKULUA: Exekuzioko organo ordezkatzailerak

- 1) Honen bidez exekuzioko organo ordezkatzailerak eratuko da, eta bere lana Kideen Biltzarrari Konbentzioa eragingarritasunez betetzearen inguruko ebaluazioan eta azterketan laguntzea da. Organo honetan kide guztiek parte har dezakete eta klimaren aldaketarekin lotura duten gaitan aditu diren gobernuetako ordezkariak osatuko dute. Aldian-aldian bere lanaren alde guztiei buruzko txostena aurkeztuko dio Kideen Biltzarrari.
- 2) Kideen Biltzarraren zuzendaritzapean, organo honek:

- a) 12. artikuluko 1. paragrafoaren arabera transmititutako informazioa aztertuko du, klimaren aldaketaren inguruko ebaluazio zientifiko berrienen arabera kideek hartutako neurrien gehitutako eraginak batera ebaluatzeko;
- b) 12. artikuluko 2. paragrafoaren arabera transmititutako informazioa aztertuko du, 4. artikuluko 2. paragrafoko d) puntuan erabakitako azterketak egiteko garaian Kideen Biltzarrari laguntzeko; eta
- c) Dagokionaren arabera, Kideen Biltzarrari bere erabakiak prestatzen eta aplikatzen lagunduko dio.

10. ARTIKULUA: Exekuzioko organo ordezkatzailerak

- 1) Honen bidez exekuzioko organo ordezkatzailerak eratuko da, eta bere lana Kideen Biltzarrari Konbentzioa eragingarritasunez betetzearen inguruko ebaluazioan eta azterketan laguntzea da. Organo honetan kide guztiek parte har dezakete eta klimaren aldaketarekin lotura duten gaietan aditu diren gobernuetako ordezkariak osatuko dute. Aldian-aldean bere lanaren alde guztiei buruzko txostena aurkeztuko dio Kideen Biltzarrari.
- 2) Kideen Biltzarraren zuzendaritzapean, organo honek:
 - a) 12. artikuluko 1. paragrafoaren arabera transmititutako informazioa aztertuko du, klimaren aldaketaren inguruko ebaluazio zientifiko berrienen arabera kideek hartutako neurrien gehitutako eraginak batera ebaluatzeko;
 - b) 12. artikuluko 2. paragrafoaren arabera transmititutako informazioa aztertuko du, 4. artikuluko 2. paragrafoko d) puntuan erabakitako azterketak egiteko garaian Kideen Biltzarrari laguntzeko; eta
 - c) Dagokionaren arabera, Kideen Biltzarrari bere erabakiak prestatzen eta aplikatzen lagunduko dio.

11. ARTIKULUA: Finantzaziorako mekanismoak

- 1) Artikulu honen bidez, besteak beste, teknologien transferentziarako diru-laguntza gisa edo mesede gisa emango diren finantza-baldintzak banatzeko mekanismoa definitu da. Mekanismo horrek Kideen Biltzarraren zuzendaritzapean egingo du lan eta Biltzarrari bere lanaren berri emango dio. Biltzarrak mekanismoaren politikak, programen lehentasunak eta onargarritasun-irizpideak erabakiko ditu Konbentzio honekin lotuta. Bere funtzionamendua nazioarteko erakunde baten edo hainbaten esku egongo da.
- 2) Finantzaziorako mekanismoak kide guztien ordezkariak berdina eta orekatua izango du, zuzendaritza-sistema gardena izan dadin.
- 3) Kideen Biltzarrak eta finantzaziorako mekanismoen funtzionamenduaz arduratzen den erakundeak aurreko paragrafoak betetzearen inguruko akordioak adostuko dituzte. Akordio horietan ondorengo ere sartu beharko dute:
 - a) Klimaren aldaketari aurre egiteko finantzatzutako proiektuak Kideen Biltzarrak ezarritako politikekin, programen lehentasunekin eta onargarritasun-irizpideekin bat datoze segurtatzeko moduak;
 - b) Finantzioko erabaki zehatzak politiken, programen lehentasunen eta onargarritasun-irizpideen arabera berriz aztertu ahal izateko moduak;

- c) Aldian-aldian, erakundeak edo erakundeek finantzazio-eragiketei buruzko txostenak aurkeztea Kideen Biltzarrari, 1. paragrafoan aipatutako baldintzak betez; eta
 - d) Aurreikusi eta identifikatzeko moduan, Konbentzio hau aplikatzeko behar den eta eskuragarri dagoen finantzazio-kopurua zehaztea eta aldian-aldian zenbateko hori berrikusteko baldintzak.
- 4) Kideen Biltzarrak bere saioen lehen aldi aurreko xedapenak aplikatzeko akordioak onartuko ditu. Horretarako 21. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen diren behin-behineko akordioak aztertuko ditu eta kontuan hartuko ditu, eta behin-behineko xedapen horiek mantendu behar diren erabakiko du. Hortik aurrera, hurrengo lau urteetan, Kideen Biltzarrak finantzaziorako mekanismoa aztertuko du eta behar diren neurriak hartuko ditu.
- 5) Garatutako herrialde diren kideek Konbentzio hau aplikatzearekin lotutako finantza-baliabideak eman ahal izango dituzte eta garapen bidean dauden herrialdeek baliabide horiek erabili egin ahal izango dituzte, alde biko, lurraldeko edo alde askotako bideak erabiliz.

12. ARTIKULUA: Aplikazioarekin harremana duen informazioa transmititzea

- 1) 4. artikuluko 1. paragrafoa betez, kide bakoitzak informazioko ondorengo elementuak jakinaraziko dizkio Kideen Biltzarrari, idazkaritzaren bidez:
- a) Horretarako aukera duten neurrian, iturrien bidez eginiko isurpen antropogenoen eta Montrealgo Protokoloak kontrolatzen ez dituen berotegi-efektuko gas guztien hustulekuen xurgatzearen inguruko nazio mailako inbentarioa; horretarako Kideen Biltzarrak sustatutako eta onartutako metodologia alderagarriak erabili beharko lirateke;
 - b) Konbentzioa aplikatzeko hartu dituen edo hartuko dituen neurrien deskribapen orokorra; eta
 - c) Kideari Konbentzioaren helburuak lortzeko egokia iruditzen zaion eta bere komunikatuan sartzeko modukoa den beste edozein informazio; horretarako aukera izanez gero, munduko isurpenen joerak kalkulatzeko datu egokiak sartu beharko lirateke.
- 2) Garapen bidean dauden herrialde diren kideek eta I. eranskinean aipatzen diren gainerako kideek beren komunikatuan ondorengo informazioa gehituko dute:
- a) 4. artikuluko 2. paragrafoko a) eta b) puntuen arabera hartutako konpromisoak gauzatzeko hartutako politika eta neurrien deskripzio zehatza;
 - b) Beren iturrien bidezko isurpen antropogenoen eta berotegi-efektuko gasen hustulekuen xurgatzearen inguruan, 4. artikuluko 2. paragrafoko a) puntuan aipatzen den epean, a) puntuan aipatzen diren politikek eta neurriek izango duten eraginaren kalkulu zehatza.
- 3) Gainera, garatutako herrialde diren kideek eta II. eranskinean aipatzen diren gainerako garatutako kideek 4. artikuluko 3, 4 eta 5. paragrafoen inguruko neurri zehatzak gehitu beharko dituzte.
- 4) Garapen bidean dauden herrialde diren kideek finantzaziorako proiektuak proposatu ahal izango dituzte beren borondatez. Proposamen horietan, proiektuak gauzatzeko behar dituzten teknologiak, materialak, ekipoa, teknikak edo jarduerak aipatu beharko dituzte

- eta, ahal izanez gero, gastu gehigarrien, isurpenen murrizketen, berotegi-efektuko gasen xurgapenak areagotzearen eta ondorioz lor daitezkeen onuren inguruko kalkuluak gehitu beharko lirateke.
- 5) Garatutako herrialde diren kideek eta I. eranskinean aipatzen diren gainerako kideek hasierako komunikatu bat aurkeztuko dute, kidearen lurraldean Konbentzioa indarrean jarri eta hurrengo sei hilabeteetan. Zerrenda horretan agertzen ez diren kideek beren lurraldean Konbentzioa indarrean jartzen denetik edo 4. artikuluko 3. paragrafoaren arabera finantza-baliabideak eskuratzen direnetik hiru urtera aurkeztuko dute komunikatua. Gutxien aurreratutakoen taldean dauden kideek nahi dutenean aurkeztu ahal izango dute hasierako komunitatua. Kideen Biltzarrak zehaztuko du kideek hortik aurrera aurkeztu beharko dituzten komunikatuen maiztasuna, eta horretarako paragrafo honetan aipatutako epe desberdinak kontuan hartu beharko ditu.
 - 6) Artikulu honen arabera kideek aurkeztuko duten informazioa, ahalik eta azkarren, helaraziko die idazkaritzak Kideen Biltzarrari eta dagokien organo ordezkatzaleei. Hala behar izanez gero, Kideen Biltzarrak informazioa jakinarazteko prozedurak berriro aztertzeak aukera izango du.
 - 7) Saioen lehen garaitik aurrera, Kideen Biltzarrak garapen bidean dauden kideei laguntza tekniko eta finantza-laguntza emateko xedapenak onartuko ditu, kide horiek hala eskatuz gero, batetik, artikulu hau betetzeko informazio biltzeko eta aurkezteko eta, bestetik, 4. artikulua arabera proposatutako proiektuen eta erantzuteko neurrien inguruko behar teknikoak eta finantza-beharrak zehazteko. Laguntza hori, dagokienaren arabera, kideek, nazioarteko erakunde eskudunek eta idazkaritzak eman ahal izango dute.
 - 8) Edozein kide-taldek komunikatu bateratua aurkeztu ahal izango du, Kideen Biltzarrak onartutako gidalerroak jarraituz gero eta Kideen Biltzarrari aurrez jakinarazi ondoren. Horrez gain, horretarako, artikulu honetako betebeharrak guztiak bete beharko ditu, eta, komunikatu horren barruan, talde horretako kide bakoitzak Konbentzio honen arabera betebeharrak indibidualak betetzei buruzko informazioa sartu beharko du.
 - 9) Idazkaritzari informazioa aurkeztu dion kideak, Kideen Biltzarrak ezarritako irizpideen arabera, informazio hori isilpeko gisa katalogatzen badu, idazkaritzak bere konfidentzialtasuna babesteko moduan jasoko du, informazioaren transmisioan eta azterketan parte hartzen duten organoen esku utzi aurretik.
 - 10) 9. paragrafoaren arabera, eta edozein kide bere komunikatua edozein momentutan publiko egiteko aukera ukatu gabe, artikulu honen arabera, idazkaritzak Kideen Biltzarrean aurkezten direnean egingo ditu publiko kideen komunikatuak.

13. ARTIKULUA: Konbentzioa aplikatzearekin lotura duten auziak erabakitzea

Bere saioren lehen aldian, Kideen Biltzarrak alde askotako kontsultarako mekanismo bat sortzea aztertuko du. Hala eskatuz gero, kideek mekanismo honetara jotzeko aukera izango dute Konbentzioa aplikatzearekin lotura guten gaiak erabakitzeko.

14. ARTIKULUA: Eztabaidak konpontzea

- 1) Konbentzioa interpretatzeko eta aplikatzeko garaian bi kideren edo kide gehiagoren artean eztabaida sortuz gero, interesa duten aldeak negoziazioaren bidez edo berek aukeratutako beste modu baketsu baten bidez konpontzen saiatuko dira.
- 2) Konbentzioa berresteko, onartzeko edo onesteko edo berari atxikitzeke garaian edo hortik aurrera edozein momentutan, ekonomia-integrazioeko lurralde mailako erakunde ez den edozein kidek gordailuzainari aurkeztutako idatzi baten bidez deklarazioa egiteko aukera izango du. Gordailuzainak idatzi hori betebeharrak ipso facto gisa hartuko du, inolako erabaki berezirik gabe, Konbentzioaren interpretazioaren eta aplikazioaren inguruko edozein eztabaidaren arabera eta betebeharrak hori onartzen duen beste edozein kiderekin harremanetan. Deklarazio horretan ondorengoa adierazi beharko da:
 - a) Eztabaida Nazioarteko Justizia Gortearen eraginpean jartzea; edo
 - b) Arbitratzearen inguruan, Kideen Biltzarraren prozeduren arabera, eta hala egin daitekeenean, arbitratzeari buruzko eranskina eratzea.

Ekonomia-integrazioeko lurralde mailako erakunde den kide batek antzeko eragina izango duen adierazpena egin dezake, b) puntuan aipatutako prozeduren arabera arbitratzarekin lotuta.

- 3) Artikulu honetako 2. paragrafoaren arabera formulatutako deklarazio guztiek indarrean jarraituko dute bertan aurreikusten denaren arabera iraungi arte edo baliogabetzea idatzi gordailuzainari jakinarazi zaion egunetik kontatzen hasita hiru hilabete pasatzen direnean.
- 4) Deklarazioek, baliogabetze-jakinarazpenek edo deklarazioaren iraungitzeek ez diete inolara ere Nazioarteko Justizia Gortearen edo arbitraje-tribunalaren aurrean zain dauden prozedurei eragingo, eztabaidan dauden kideek zerbait adosten ez badute behintzat.
- 5) 2. paragrafoaren aplikazioari lotuta, kide batek besteari beren arteko eztabaida jakinarazten dionetik 12 hilabete pasatu direnean, interesa duten kideek beren arteko eztabaida 1. paragrafoan aipatutako bitartekoen bidez konpondu ez badute, kideetako batek eskatuta eztabaida adiskidetzearen bidez konponduko da.
- 6) Eztabaidan dauden kideetako batek eskatuta, adiskidetze-batzordea sortuko da. Batzorde horretan aritzeko, interesa duen kide bakoitzak partaide kopuru berbera izendatutako du eta kide bakoitzak izendatutako partaideek lehendakaria aukeratuko dute. Batzordeak gomendio bat egingo du eta kideek onez onartuko dute.
- 7) Hala egin daitekeenean, Kideen Biltzarrak adiskidetzeari buruzko xedapen gehigarriak ezarriko ditu adiskidetzeari buruzko eranskinean.
- 8) Artikulu honetako xedapenak Kideen Biltzarra onartzen duten bitarteko juridiko guztiei aplikatuko zaizkie, bitartekoan besterik aipatzen ez bada.

15. ARTIKULUA: Konbentzioaren zuzenketak

- 1) Edozein kidek zuzenketak aurkeztu ahal izango dizkio Konbentzioari.
- 2) Konbentzioari egindako zuzenketak Kideen Biltzarraren ohiko saioetan onartu beharko dira. Idazkaritzak zuzenketa-proiektuaren testua gutxienez testu hori onar dadin proposatuko den bilera egin baino sei hilabete lehenago aurkeztu beharko die kideei. Halaber, idazkaritzak Konbentzioa sinatzen dutenei eta, informazio gisa, gordailuzainari ere emango die zuzenketa-proiektuaren berri.

- 3) Konbentzioaren inguruko edozein zuzenketa-proiekturen inguruan adostasuna lortzeko ahalik eta gehien saiatuko dira kideak. Adostasuna lortzeko aukera guztiak agortu eta adostasunik lortu ez bada, azken aukera gisa, zuzenketa onartu egingo da, bileran dauden kideen eta boto-emaileen hiru laurdenak alde egonez gero. Idazkaritzak gordailuzainari emango dio onartutako zuzenketaren berri; honek kide guztiei jakinaraziko die onartzeko.
- 4) Zuzenketa onartzeko bitartekoak gordailuzainari emango zaizkio. Artikulu honetako 3. paragrafoaren arabera onartutako zuzenketak, onartu dituzten kideentzako, gordailuzainak Konbentzioko hiru laurdenen onartzeko bitartekoak jasotzen dituen egunetik kontatzen hasita laurogeita hamargarren egunean jarriko dira indarrean.
- 5) Gainerako kideentzako, gordailuzainari zuzenketak onartzeko bitartekoak emandako egunetik kontatzen hasita laurogeita hamargarren egunean jarriko dira indarrean.
- 6) Artikulu honetan, "bertan dauden kideak eta boto-emaileak" baiezeko edo ezezko botoa ematen duten eta une horretan bertan dauden kideak dira.

16. ARTIKULUA: Konbentzioaren eranskinak onartzea eta zuzentzea

- 1) Konbentzioaren eranskinak bere zati dira eta, espreski kontrakorik adierazten ez bada, Konbentzioaren inguruko edozein erreferentzia egiten denean, eranskinak barruan sartzen dira. 14. artikuluko 2. paragrafoko b) puntuan eta 7. paragrafoan aipatzen dena alde batera utzi gabe, eranskinetan, zerrendak, formularioak eta gai zientifiko, tekniko, prozedurazko edo administratiboen deskripziozko beste edozein material sartu ahal izango dira.
- 2) Konbentzioaren eranskinak 15. artikulua 2, 3 eta 4. paragrafoetan ezarritako prozeduren arabera proposatuko eta onatuko dira.
- 3) Aurreko paragrafoaren arabera onartutako eranskin guztiak, Konbentzioko kide guztientzako, gordailuzainak kideei eranskinak onartuta daudela jakinarazi eta sei hilabetetara jarriko dira indarrean, epe horren barruan gordailuzainari eranskina ez dutela onartuko idatziz jakinarazten dioten kideen lurraldeetan izan ezik. Eranskina ez onartzeko jakinarazpena atzera bota duten kideentzat, eranskin hori gordailuzainak atzera botatzeko jakinarazpena jaso duen egunetik kontatzen hasita laurogeita hamargarren egunean jarriko da indarrean.
- 4) Konbentzioaren eranskinari egindako zuzenketa proposamena, onarpena eta indarrean jartzea Konbentzioaren eranskinak proposatzen direnean, onartzen direnean eta indarrean jartzen direnean aplikatzen den prozedura berberarekin zuzenduko dira, artikulu honen 2. eta 3. paragrafoen arabera.
- 5) Eranskin bat edo eranskin bati egindako zuzenketa onartzeko Konbentzioa zuzentzea beharrezkoa balitz, eranskina edo eranskinari egindako zuzenketa ez da indarrean jarriko Konbentziolari egindako zuzenketa indarrean jarri arte.

17. ARTIKULUA: Protokoloak

- 1) Kideen Biltzarrak bere saioen edozein garaitan onartu ahal izango ditu Konbentzioaren protokoloak.

- 2) Idazkaritzak protokolo bat aurrera eramateko proiekturako testua gutxienez saioen garai hori hasi baino sei hilabete lehenago jakinaraziko die kideei.
- 3) Protokoloa indarrean jartzeko baldintzak bitarteko horren bidez ezarriko dira.
- 4) Konbentzioko kideek bakarrik izango dute protokoloako kide izateko aukera.
- 5) Protokoloako kideek bakarrik hartuko dituzte protokoloaren inguruko erabakiak.

18. ARTIKULUA: Botoa emateko eskubidea

- 1) Artikulu honetako 2. paragrafoan aipatzen denaz aparte, Konbentzioko kide bakoitzak boto bakarra izango du.
- 2) Ekonomia-integrazioko lurralde mailako erakundeek, beren eskumeneko gaiei buruzko erabakietan, erakundeko eta, era berean, Konbentzioko zenbat kide dauden, hainbat boto izango dituzte. Erakunde horiek ez dute botoa emateko eskubiderik izango erakunde horretako estatukideren batek bere botoa erabiltzen badu, eta alderantziz.

19. ARTIKULUA: Gordailuzaina

Nazio Batuen idazkari nagusia da Konbentzioaren eta 17. artikuluaaren arabera onartutako protokoloen gordailuzaina.

20. ARTIKULUA: Sinadura

Konbentzioa ondorengoek sina dezakete: Nazio Batuen kide diren estatuek, erakunde espezializatuetako kide diren estatuek, Nazioarteko Justizia Gorteko Estatutuaren kide diren estatuek eta Rio de Janeiroko ekonomia-integrazioko lurralde mailako erakundeetako kideek. Konbentzioa Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarrean eta, ondoren, 1992ko ekainaren 20tik 1993ko ekainaren 19ra New Yorkeko Nazio Batuen egoitzan sina dezakete.

21. ARTIKULUA: Behin-behineko xedapenak

- 1) 8. artikuluan aipatzen diren idazkaritzaren eginbeharrak Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1990eko abenduaren 21eko 45/212 ebazpenean sortutako idazkaritzak beteko ditu behin-behinean, Kideen Biltzarrak saioen lehen aldia amaitu arte.
- 2) 1. paragrafoan aipatzen den behin-behineko idazkaritzaren burua klimaren aldaketari buruzko gobernuarteko taldearekin elkarlanean arituko da, taldeak aholkularitza zientifiko eta tekniko objektiboaren beharrak aseko dituela segurtatzeko. Beste organismo zientifiko eskudunei ere galdetu ahal izango die.
- 3) Garapenerako Nazio Batuen Programaren, Nazio Batuen Ingurugiro Programaren eta Berreraiketako eta Sustapeneko Nazioarteko Bankuaren Munduko Ingurugiro Funtsa izango da behin-behinean 11. artikuluan aipatzen diren finantzaziorako mekanismoen funtzionamenduaz arduratuko den nazioarteko erakundea. Honen inguruan, Munduko Ingurugiro Funtsa behar bezala berregituratu beharko litzateke eta bere osaketari izaera unibertsala eman beharko litzaioke, 11. artikuluko baldintzak bete ahal izateko.

22. ARTIKULUA: Berrestea, onartzea, onestea edo atxikitzea

- 1) Estatuak eta ekonomia-integratioko lurralde mailako erakundeek Konbentzioa berretsi, onartu, onetsi edo Konbentzioaren kide egin beharko dute. Konbentzioa sinatzeko epea amaitzen den egunaren biharamunean atxikitzea irekita egongo da. Berresteko, onartzeko, onesteko edo atxikitzeko bitartekoak gordailuzainaren eskuetan egongo dira.
- 2) Konbentzioaren kide bilakatzen diren ekonomia-integratioko lurralde mailako erakundeen barruan estatu bat bera ere ez bada Konbentzioko kide, berei dagozkien Konbentzioaren eginbeharrei lotuta geratuko dira. Erakunde horietako estaturen bat edo batzuk Konbentzioaren kide badira, estatu horiei dagozkien Konbentzioaren eginbeharrak betetzeko ardurak zehaztuko dituzte erakundeak eta kide diren estatuak. Kasu horietan, erakundeak eta kide diren estatuak ezingo dituzte Biltzarrak emandako eskubideak une berean erabili.
- 3) Ekonomia-integratioko lurralde mailako erakundeek Konbentzioak araututako gaien inguruko eskuduntzen helmena adieraziko dute, berresteko, onartzeko, onesteko edo atxikitzeko beren bitartekoetan. Halaber, erakunde horiek beren eskuduntzen helmenaren inguruko edozein aldaketa nabarmen gordailuzainari jakinaraziko diote, eta berak, era berean, kideei jakinaraziko die.

23. ARTIKULUA: Indarrean jartzea

- 1) Berresteko, onesteko, onartzeko edo atxikitzeko berrogeita hamargarren bitartekoa aurkezten den egunetik kontatzen hasita laurogeita hamargarren egunean jarriko da indarrean Konbentzioa.
- 2) Konbentzioa berretsi, onartu edo onesten duen edo bere kide egin den ekonomia-integratioko lurralde mailako estatu edo erakunde bakoitzari dagokionez, berresteko, onesteko, onartzeko edo atxikitzeko berrogeita hamargarren bitartekoa aurkeztuta dagoenean, Konbentzioa laurogeita hamargarren egunean jarriko da indarrean, estatuak edo erakundeak bere berresteko, onesteko, onartzeko edo atxikitzeko bitartekoa aurkezten duen egunetik kontatzen hasita.
- 3) 1. eta 2. paragrafoek eragina izan dezaten, ekonomia-integratioko lurralde mailako erakundeak aurkeztutako bitartekoak ez ditu erakundeak gainerako estatuak aurkeztutakoak barne hartuko.

24. ARTIKULUA: Erreserbak

Konbentzioari ezingo zaizkio erreserbak formulatu.

25. ARTIKULUA: Salaketa

- 1) Edozein kidek edozein momentutan salatu ahal izango du Konbentzioa, gordailuzainaren aurrean jakinarazpena egin ondoren eta kide horri dagokionez Konbentzioa indarrean jarri eta hiru urte pasatu ondoren.
- 2) Gordailuzainak salaketari dagokion jakinarazpena jasotzen duen egunetik urtebetera edo, bestela, jakinarazpenean adierazten den datan izango du eragina salaketa horrek.

- 3) Konbentzioa salatzen duen kideak bera ere kide den protokoloa ere salatzen duela ulertuko da.

26. ARTIKULUA: Jatorrizko testuak

Konbentzio onen jatorrizko testua arabieraz, txineraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta errusieraz dago idatzita eta Nazio Batuen idazkari nagusiaren eskuetan egongo da.

HORREN ADIERAZGARRI amaieran aipatzen direnek –horretarako behar adina eskumenekin– Konbentzio hau sinatu dute.

Mila, bederatziehun eta laurogeita biko maitzaren bederatzian New Yorken EGINA.

I. ERANSKINA

Alemania

Ameriketako Estatu Batuak

Australia

Austria

Belgika

Bielorrusia a/

Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua

Bulgaria a/

Danimarka

Errumania a/

Errusiar Federazioa a/

Espainia

Estonia a/

Europako Elkartea

Finlandia

Frantzia

Grezia

Herbehereak

Hungaria a/

Irlanda
Islandia
Italia
Japonia
Kanada
Letonia a/
Lituania a/
Luxemburgo
Norvegia
Polonia a/
Portugal
Suedia
Suitza
Turkia
Txekoslovakia a/
Ukraina a/
Zeelanda Berria

a/ Merkatuko ekonomiarako trantsizio-prozesuan dauden herrialdeak.

II. ERANSKINA

Alemania
Ameriketako Estatu Batuak
Australia
Austria
Belgika
Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua
Danimarka

Espainia

Europako Elkartea

Finlandia

Frantzia

Grezia

Herbehereak

Irlanda

Islandia

Italia

Japonia

Kanada

Luxemburgo

Norvegia

Portugal

Suedia

Suitza

Turkia

Zeelanda Berria